



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

115. INFORMAZIO BULETINA

> 2016ko Urria



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **Gipuzkoako Foru Aldundiak berretsi egin du talentua erakarri eta bertan atxikitzeko helburua duen Fellows programarekiko konpromisoa**

Markel Olano diputatu nagusia, Ainhoa Aizpuru Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako diputatua eta Garikoitz Agote Berrikuntzako zuzendaria Gipuzkoara talentua erakarri eta bertan atxikitzeko Fellows programako onuradun diren zentro eta ikertzaileen sareko kideekin bildu dira urrian.

Bi helbururekin egin dute bilera: batetik, Gipuzkoako zentroetako zientzialariek eta arduradunekin harremana zuzenean izatea eta, bestetik, programak hurrengo deialdirako eskainiko dituen hobekuntzak aurkeztea.

Fellows programa 2000. urtean sortu zen goi mailako ikertzaile atzerritarrak kontratatu eta, hala, Gipuzkoako ikerketa-zentroen maila zientifikoa hobetzeko. 2016an, talentua erakartzeaz gain, talentua bertan atxikitzearen kontzeptua eta helburua ezarri ditugu eta, hala, zentroek 5 urtez jarraitu ahal izango dute ikerketa lanak egiten. Aurtengo berrikuntza nagusietako bat Fellows programaren deialdi irekia da.

I+G+b-ren aldeko apustua Foru Aldundiaren helburu estrategikoetako baten parte da eta Fellows Gipuzkoa funtsezko elementuetako bat da. Ekonomia suspertzeko eta gure enpresak hazteko ardatzetako bat da, hala, enpresek produktu eta zerbitzu berriak ekoitz ditzaten, jakintza garatu eta transmiti dezaten eta ikertzaile berrien prestakuntza susta dezaten.

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoa.eus/es/-/i-g-arloan-gipuzkoa-europako-erreferentzia-izatea-da-gure-helburua-eta-horretarako-talentua-da-gakoa->

<http://gipuzkoaikt.igipuzkoa.net/es/web/guest/fellows-gipuzkoa>



> **Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak DG Regio eta Eurocities-eko arduradunekin bildu dira 2016ko Open Days delakoan parte hartzeko**

Maribel Vaquero, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen foru-zuzendaria eta Iker Goiria Kanpo Harremanetako zuzendaria Bruselan izan dira, Europako Eskualde eta Hirien Europako Astearen harira antolatu dituzten jardunaldietan (Open Days 2016).

Foru Aldundiko bi zuzendariak zenbait ordezkariarekin bildu dira, besteak beste, hauekin: Oliver Baudalet DG Regioren arduraduna (Europako Hiri Agendaren arduraduna); Euskadik Europar Batasunean duen ordezkari Marta Marin; Izaskun Bilbao europarlamentarioa; Erlai sarearen koordinatzaile Graziana Galatti (Europako eskualdeen sarea); Eurocities-eko komunikazio-arduradun Nicola Vathaver.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak migrazio eta errefuxiatuen gaiak dakartzan erronkak jorratu dituzte, besteak beste.

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoa.eus/es/-/bizikidetzeta-eta-kanpo-harremanetako-zuzendariak-bruselan-izan-dira-migrazio-politiken-inguruko-esperientziak-ezagutzen>



> **Gipuzkoak berdintasun-gaietako esperientziak trukatu ditu Norvegiako gobernuarekin**

Gipuzkoako Foru Aldundia, Berdintasuneko Zuzendaritzaren bidez, Norvegiar izan zen urriaren hasieran, berdintasun-gaietako nazioarteko adituei Indarkeria Matxistaren Foru Plana aurkeztu eta hari buruz aritzeko.

Bisitaldian, berdintasunerako eta erantzukidetasunerako Norvegiako politikak eta han abian dituzten genero-indarkeriari buruzko lanak ezagutzeko aukera izan dute Gipuzkoako ordezkariak Norvegiako Gobernuako Hartzako eta Berdintasuneko Ministerioaren eskutik.

Testuinguru horretan, urriaren 27an eta 28an Berdintasuna eta Kontziliazioa kongresua izan zen Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta eta berdintasun-gaietako adituek hartu zuten parte, bai bertakoek, bai nazioartekoek, eta zenbait ekimen aurkeztu zituzten gizon-emakumeek bizitza pertsonala eta lan-bizitza garatzeko aukera berdinak izatea bermatzeko.

Informazio gehiago:

<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/es/home>



KOHESIO-POLITIKA

> Hiri Garapen Iraunkor eta Integratuko Estrategiak (EDUSI) hautatzeko bigarren deialdia

Urriaren 7an, Estatuko Buletin Ofizialean (BOE) argitaratu zen Hiri Garapen Iraunkor eta Integratuko Estrategiak hautatzeko bigarren deialdia onartzeko agindua. Hazkunde iraunkorrerako 2014-2020rako EGEF Programa Operatiboaren bidez (POCS) kofinantzatuko dira.

Onuradunak udalak edo 50.000 biztanletik gorako eremu funtzionalak ordezkatzan dituzten udalaz gaindiko erakundeak izan daitezke. Kofinantzatuko diren lanetarako, aipatu onuradun horientzat, gehienez, 15 milioi euro bideratuko dira. 20.000 biztanle baino gehiago eta 50.000 baino gutxiago dituzten eremu funtzionalei, berriz, 5 milioi euro esleituko zaizkie gehienez eta bi kasuetan, % 50era artekoa izango da kofinantzaketa.

DUSIren bigarren deialdi honen zenbatekoa lehenengo deialdikoa baino txikiagoa da. Programa Operatiboan hiri-ardatzari bideratutako EGEF laguntza osoaren % 30 inguru sartuko da deialdian.

Eskaerak aurkezteko berrogeita bost egun balioduneko epea izango da deialdia Estatuko Buletin Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Informazio gehiago:

http://rediniciativasurbanas.es/RIU/LANG_CASTELLANO/convocatoria_ayudas/estrategias_dusi/



> Akitania-Euskadi 2016 proiektuen deialdiaren ebazpena nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria, energia berriztagarriak eta itsasoko baliabideak sektoretarako

Akitania-Euskadi euroeskualdeak hautatu ditu Akitania-Euskadi 2016rako proiektuen deialdiaren bigarren saioan aurkeztutako proiektuak.

200.000 €-ko aurrekontua zuen deialdiak eta helburua euroeskualdeko ekonomian funtsezkoak diren sektoreetan "euroeskualde mailako elkarlan estrategikoak" sortzea da. Honako sektore haueko proiektuei zuzendu zaie deialdia oraingoan: nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria, energia berriztagarriak eta itsasoko eta itsasertzeko baliabideak.

Akitania-Euskadi laguntzen deialdia eragile sozio-ekonomikoen arteko lankidetzak ekintzak sustatzeko da, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitania-Limousin-Poitou-Charentes eskualdeko kideek, elkarrekin, proiektuak gauza ditzaten.

Informazio gehiago:

http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8557/Dossier_ES.pdf?1476344166

<http://www.aquitaine-euskadi.eu>



> **Batzordeak Gazteentzako Bermeak eta Gazteen Enplegurako Ekimenak ekarritako lorpenen balantzea egin du**

Europako Batzordeak, komunikazio baten bidez, nabarmendu egin ditu Gazteentzako Bermeak eta Gazteen Enplegurako Ekimenak, 2013an abian jarri zirenetik, izandako lorpenak.

Gazteentzako Bermea Europar Batasuneko estatu-kide guztiek hartutako konpromiso politiko bat da. Batzordeak eginiko proposamen baten ostean hartu zuten konpromisoa gazte bakoitzari, langabezian gelditzean edo hezkuntza formala uztean, enplegua, hezkuntza jarraitua, ikastun-prestakuntza edo praktiketarako aldiaren eskaintza on bat ematekoa.

Gazteen Enplegurako Ekimena da Europar Batasunak Gazteentzako Bermea gauzatzeko eta gazteen langabezia % 25etik gorakoa duten eskualdeei laguntza espezifiko eskaintzeko duen finantzaketa-programa nagusia. Estatu-kide guztiek Europako Gizarte Funtsetatik (EGIF) dagokien zatia ere erabiltzen dute gazteen enplegua babesteko.

Batzordeak, aipatu dugun komunikazio horren bidez, orain arte eginiko urratsen berri eman du eta erakutsi du gazteen langabeziak estatu-kide askotan funtsezko kezka izaten jarraitzen duen arren, Europar Batasuneko lan-merkatuan gazteek duten egoerak gainditu egin dituela, oro har, 2013tik zeuden espektatibak. 2013tik, 1,4 milioi gazte gutxiago daude Europar Batasunean lanik gabe eta 900.000 pertsona gutxiago daude orain ez ikasi, ez lanik egiten ez dutenak.

Bilakaera pozgarri horrek adierazten du Gazteen Bermeak, Gazteen Enplegurako Ekimenarekin batera, lagundu egin duela aldaketak dagozkien lekuetan bertan egiten. 9 milioi gazte inguruk onartu dituzte eskaintzak, batez ere lanerako eskaintzak. Bestalde, Gazteentzako Bermea politikak aldarazi dituen faktorea izan da eta horri esker, egitura-aldaketak eta berrikuntza politikoak egin dituzte estatu-kide guztietan.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=1079&langId=es>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Gipuzkoako Irizar eta Energy Revival enpresak saritu dituzte 2016ko Enpresentzako Europako Ingurumen Sarietan

Gipuzkoako Irizar eta Energy Revival enpresak eta Gerdau Aceros Especiales Europa (Bizkaian) enpresak saritu dituzte 2015-2016ko Enpresentzako Europako Ingurumen Sarietan. 125 hautagai aurkeztu ziren sarien Espainiako atalera.

Gipuzkoako Irizarrek enpresa handi eta ertainentzako "Garapen iraunkorrerako produktua/zerbitzua" kategoria irabazi du % 100 elektrikoa den 12 metroko hiribusa, munduan lehena, bere teknologia propioaz sortu eta garatuta, hirietako mugikortasun-arazoak konpontzeko egin duen ekarpenagatik.

Energy Revival enpresak, berriz, enpresa txiki eta mikroenpresentzako "Garapen iraunkorreko produktua/zerbitzua" kategoria irabazi du bateriak berreskuratzeko eskaintzen duen zerbitzuari esker.

Azkenik, "Garapen iraunkorrerako prozesua" saria Gerdau Aceros Especiales Europa enpresak jaso du izaera berritzailea duelako eta siderurgiaren sektorerako oso interesgarria delako, aukera ematen baitu hondakin erregogorren berrerabilera optimizatzeko eta material kritikoen erabilera murrizteko, Europar Batasunaren lehentasunen ildotik.

Informazio gehiago:

<http://www.ihobe.eus/Noticias/Ficha.aspx?IdMenu=c7a02482-9afb-4d77-9e2e-91b31d95d6c9&Cod=8b3dc598-ef2f-44d3-8255-a8415928c9ef&Idioma=es-ES>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Europako hirien egoera: hiriak etorkizun hobea lortzeko bidean gidari (Europako Batzordea eta NBE-Habitat)

Europako Batzordeak eta NBE-Habitat erakundeak elkarrekin eginiko txosten bat da eta haren arabera, hirietako agintariak gizarte-aldaketaren abangoardian daude erronka berriak eta aukera berriak jorratzeari dagokionez.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/policy/themes/cities-report/state_eu_cities2016_highres_en.pdf

> Hiri datuen web-plataforma. Hirien artean esperientziak trukatzeko webgunea (Europako Batzordea)

Europako Batzordeak webgune bat jarri du abian klima-aldaketaren aurkako borrokan, mugikortasuna hobetzeko estrategien garapenean edo ekonomia zirkularra sustatzeko lanetan aurrera egin nahi duten hirien artean jardunbide egokiak trukatzeko laguntzeko.

Webgunea 2016ko maiatzean hiriak arlo guztietan hobetzeko sinatu zen Amsterdamgo Itunetik sortutako Hiri Agendaren parte da.

Más información:

<http://urban.jrc.ec.europa.eu/?ind=access&ru=fua&s=0&c=1&m=0&f=1&p=0&swLat=24.206889622398023&swLng=-73.47656249999999&neLat=65.83877570688918&neLng=95.2734375>



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **2016ko EACEA-40 proposamenen deialdia. Erasmus + programa, KA3 EFP elkarteak, lanpostuko ikasketa eta praktiken inguruko enpresa-elkarteak. [EACEA-40-2016] ([+info](#))**
- **EACEA-37-2016 proposamenen deialdia. Erasmus + programa, 3. funtsezko ekintza. Politiken erreformari laguntza. Gizarte zibilarekin elkarlana gazteriaren arloan. [EACEA-37-2016] ([+info](#))**
- **CEF-Transport-2016-MAP proposamenen deialdia. Konektatu Europa mekanismoa, Garraioen sektorea, zenbait urterako programa. [CEF-Transport-2016-MAP] ([+info](#))**
- **CEF-Transport-2016-AP proposamenen deialdia. Konektatu Europa mekanismoa, Garraioen sektorea, urteko programa. [CEF-Transport-2016-AP] ([+info](#))**
- **SCC-1-2016-2016 proposamenen deialdia. Hiri eta herri adimendunen intsignia-proiektuak. Ekintza berritzaileak. [SCC-1-2016-2017] ([+info](#))**
- **CULT-COOP-06-2017(CSA), CULT-COOP-10-2017(ERA-NET-Cofund) eta CULT-COOP-11-2016-2017(RIA) proposamenen deialdia. Europa ulertuz, Europako espazio publikoa eta kulturala sustatuz. [CULT-COOP-06-2017(CSA), CULT-COOP-10-2017(ERA-NET-Cofund), CULT-COOP-11-2016-2017(RIA)] ([+info](#))**